

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Hernaniko Udala**

**Ayuntamiento de Hernani**

**2016**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK .....	5
I. SARRERA .....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK .....	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	9
III.2 Langileria .....	9
III.3 Kontratazioa .....	9
III.4 Beste batzuk .....	11
IV. FINANTZAREN ANALISIA .....	12
V. URTEKO KONTUAK.....	15
V.1 Udala .....	15
V.2 Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak.....	18
V.3 Ereñotzuko toki entitate txikia .....	21
ERANSKINAK .....	25
A.1 Fiskalizatutako entitatearen izaera .....	25
A.2 Kontabilitatea eta aurrekontuak .....	25
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	27
A.4 Transferentzia eta diru-laguntzek eragindako sarrerak .....	28
A.5 Egiatzko inbertsioen besterentzea.....	28
A.6 Langileria-gastuak .....	29
A.7 Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa .....	30
A.8 Emandako transferentzia eta diru-laguntzak .....	31
A.9 Inbertsio errealak eta aktibo ez korrontea .....	32
A.10 Zorpetzea.....	34
A.11 Zordunak eta aktibo korronteko beste kontu-sail batzuk.....	34
A.12 Hartzekodunak.....	36
A.13 Diruzaintza.....	37
A.14 Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	37
A.15 Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak .....	38
A.16 Ereñotzuko toki entitate txikia .....	39
A.17 Kontratazioaren analisia .....	40
A.18 Finantza eta aurrekontuko adierazleak.....	41
ALEGAZIOAK .....	43



ABREVIATURAS.....	47
I. INTRODUCCIÓN.....	49
II. OPINIÓN.....	50
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	50
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	50
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....	52
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	52
III.2 Personal .....	52
III.3 Contratación .....	52
III.4 Otros .....	54
IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....	55
V. CUENTAS ANUALES.....	58
V.1 Ayuntamiento .....	56
V.2 Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak .....	61
V.3 Entidad local menor de Ereñotzu.....	64
ANEXOS.....	67
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado .....	67
A.2 Contabilidad y presupuestos .....	67
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos.....	69
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	70
A.5 Enajenación de inversiones reales .....	70
A.6 Gastos de personal .....	71
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios.....	72
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas .....	73
A.9 Inversiones reales y activo no corriente .....	74
A.10 Endeudamiento .....	76
A.11 Deudores y otras partidas de activo corriente.....	76
A.12 Acreedores .....	78
A.13 Tesorería.....	79
A.14 Actuaciones urbanísticas y planeamiento.....	79
A.15 Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak.....	80
A.16 Entidad local menor de Ereñotzu.....	81
A.17 Análisis de contratación .....	82
A.18 Indicadores financieros y presupuestarios .....	83
ALEGACIONES .....	85



## LABURDURAK

AG	Auzitegi Gorena.
AHM	Arautze Harmonizatuari Meneratua.
AO	Administrazio Orokorra.
AS	Arau Subsidiarioak.
DBLO	15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzkoa.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EA	Erakunde Autonomoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
ED	Errege Dekretua.
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena.
EIOZ	Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga.
FA	Foru Araua.
FD	Foru Dekretua.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
HHS	Hiriko hondakin solidoak.
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
HLHI	Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastola.
JEZ:	Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
KEAO	Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa.
LUO	Lurraren udal ondarea.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
TMIZ	Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa.
XG	Xedapen gehigarria.
XI	Xedapen Iragankorra.



## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Hernaniko Udalaren 2016ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak udal erakunde autonomoaren eta Ereñotzuko toki entitate txikiaren balantzeak, ekonomia-ondarearen emaitzaren kontuak eta oroitidazkiak besarkatzen ditu; baita, horien guztien aurrekontuen likidazioak ere. Aipatutako kontabilitate-egoerak kanpoko enpresa batek auditatu ditu; gure lana, berriz, auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, auditoreen lan paperetan euskarrituak daudela egiaztatu dugu eta beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Hernaniko Udalak 19.712 biztanle zituen 2016ko urtarrilaren 1ean eta bere egiturari Udalaz gain, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakunde autonomoa ere besarkatzen du; erakundearen helburuak gizarte zerbitzuen eremua hartzen du, Santa Maria Magdalena egoitzan nagusien arreta integrala barne. Gainera, udalerririk Ereñotzuko toki entitate txikia hartzen du.

Gainera, ondoko mankomunitate eta partzuergoen atal da: San Markoko Mankomunitatea (hiri hondakin solidoen kudeaketa), Añarbeko Uren Mankomunitatea (uraren ziklo osoaren kudeaketa), Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Partzuergoa (garraio zerbitzua) eta Udalbiltza Partzuergoa (udalen arteko entitate mailako lankidetzak).

Berebat, Garbitania Zero Zabor, SL eta Beterri Kostako Industrialdea, SA sozietateetan, hurrenez hurren, % 49,9ko eta % 5,29ko partaidetza du eta partaidetza txikiagoa beste sozietate batzuetan (ikus A.9).



## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

#### KONTRATAZIOA (ikus A.17)

1. Zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu modura oker kalifikatutako zerbitzu baten kontratazioa (4. espediente), 3,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoa, ez zitzaion arautze harmonizatuari meneratutako kontratuentzat aurreikusitako izapideari lotu eta ez zen DOUEn argitara eman. Kontratuarentzat finkatutako iraupenak, luzapenak barne, zerbitzu kontratueterako legez aurreikusitako gehieneko iraupen-aldia gainditzen zuen eta zehatzago esanda, 2016an sinatutako luzapenak gehieneko iraupen-aldi hori gainditzen zuen (SPKLren 279 artikulua).

Epaitegi honen iritzira, Hernaniko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateek, aurreko paragrafoan aipatutako ez-betetzea alde batera, zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Epaitegi honen iritzira egin beharko ziratekeen doiketek ondotik zehaztutako eragina dute Udalaren 2016ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinaren, Egoera Balantzearen eta Funts Propioen gainean:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONTUKOA DIRUZ. GELDIKINA	ONDAREKOA		FUNTS PROP.
		AKTIBOA	PASIBOA	
A.3 Ur hornidura eta estoldak eragindako sarrerak, erregistratu gabeak.....	-	662	-	662
A.11 Zalantzako kobragarritasuneko saldoentzat soberako hornidura .....	288	288	-	288
<b>UDALA GUZTIRA</b>	<b>288</b>	<b>950</b>	<b>-</b>	<b>950</b>

2. Udalaren, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialen eta Ereñotzuko toki entitate txikiaren 2016ko abenduaren 31ko Balantzeetako ibilgetu ez finantzarioko eta amortizazio metatuko saldoek ondasun eta eskubideen egiazko egoera jasotzen duten jakiteko euskarri egoki eta behar hainbatekorik ez dago.

Epaitegi honen iritzira, 1 eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Hernaniko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.





### **III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK**

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### **III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA**

- 2016ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen 2015eko abenduaren 31 baino lehenago behin betiko onartu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 FAREN 15.2 artikulua agintzen duen moduan.
- Udalak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakunde autonomoan eta Ereñotzuko toki entitate txikian partaidetzak balioztatzeko atxikipenean emandako ondasunen kontularitzako balioa hartzen du aintzat eta ez taldeko entitateetan inbertsioak balioztatzeko finkatutako arauak, abenduaren 15eko 86/2015 FDn jasotakoak, zeinak Gipuzkoako toki entitateen kontularitzako araudi esparrua onartzen duen (ikus A.9).

#### **III.2 LANGILERIA**

- Udalaren LZ ez zaio plantillako egiturazko beharrei egokitzen udal euskaltegiko, musika eskola publikoko eta oinarrizko lanbide heziketako programako langileriari dagokionez eta behar horiek aldi baterako kontratazio bidez berdintzen ditu (ikus A.6).
- 2016ko urrian bitarteko funtzionario izendatu zen langile bat 2016/2017 ikasturtean udal euskaltegian eskolak emateko; ez da, baina, hautatzeko prozedurarik batere gauzatu izana jaso.

#### **III.3 KONTRATAZIOA**

- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko jarraibideak ebatzi, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo litezkeen ekintzak saihestearren, aurrekontu egonkortasuna eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuaren 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan.

## Kontratazio espedienteak (ikus A.17)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 12 kontratuak aztertzean -horietako 9 Udalak berak esleitutakoak eta 3, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak erakundeak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu:

- Udalak eta bere Erakunde Autonomoak esleitutako 10 kontratutan honako akats hauek azaleratu dira pleguetan barne hartutako esleipen irizpideetan:
  - Guztira 7 kontraturen pleguetan barne hartutako formula aplikatzean, horietako bi, 2,9 milioi euroan esleitutakoak eta gainerakoak aleko prezioetan, prezio batek lizitazio tipoa berdinduz gero, puntuazio positiboa eskuratuko luke eskaintza ekonomikoa irizpidearen balorazioan. Horrek esan nahi du automatikoki neurgarriak diren irizpideei irizpide subjektiboek baino haztapen handiagoa ematen bazitzairen ere, egiazko haztapena txikiagoa zela (3, 5, 6, 7, 9, 11 eta 12 espedienteak).
  - 2,4 milioi euroan esleitutako 2 obra kontratutan zigortu egiten ziren eskaintzarik ekonomikoenak, izan ere prezio irizpidearen balorazioan ez zitzairen batere punturik ematen eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko portzentajezko 10 unitate baino merkatze handiagoak eskaintzen zituzten proposamenei (1 eta 2 zk. espedienteak).
  - Aleko prezioetan esleitutako 4 kontratutan, kontratuaren xedearekin zuzenean lotu gabeko eskaintzak balioztatzeko irizpideak baliatu ziren (SPKLTBren 150.1 artikulua), enpresa lehiatzaileen barne antolamenduarekin edo euren instalazioen kokapenarekin loturik (6, 7, 9 eta 10 zk. espedienteak).
  - Guztira 4 kontraturen pleguek, horietako bat 2,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoa eta gainerakoak aleko prezioetan, esleipen irizpide modura hobekuntza teknikoak jasotzea barne hartzen dute, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan baimentzen den horiek aurkeztea zehaztu gabe (3, 5, 7 eta 10 zk. espedienteak). Kasuetariko batean, bazter utzitako lehiatzaileetako batek aipatutako irizpidearen aplikazioa aurkaratu zuen eta horren ondorioz, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak lehiaketa bertan behera uzteko agindu zuen (3. espedienteak).
- Aleko prezioetan esleitutako 3 kontraturen pleguek ez zituzten apirilaren 7ko 3/2016 Legeak agindutako hainbat ohar edo informazio jasotzen, kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk barne hartzeari dagokionez (5, 6 eta 7 zk. espedienteak). Aipatutako kontratuen eta beste 2ren -2,8 milioi euroan esleitutakoak (2 eta 12 zk. espedienteak)- esleipen irizpideek ez zuten ezargarria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen, aipatutako arauak agintzen duen moduan.
- 3,8 milioi euroan esleitutako kontratu batean eta aleko prezioetan esleitutako hirutan (4, 5, 6 eta 7 zk. espedienteak) behin betiko bermearen zenbatekoa legeak agintzen duena baino txikiagoa zen, izan ere, kalkulua egiteko ia guztietan urteko bakar bat hartu da aintzat eta ez kontratuaren iraupen aldi osoa (5. espedienteak). Beste kontratu batean (12. espedienteak), 645.787 euroan esleitutakoan, behin betiko bermea kalkulatzeko balizko luzapen-aldiak hartu ziren aintzat.



- Izaera pertsonaleko datuen tratamendua berekin ondorioz zekarren kontratu baten kasuan ez zen aintzat hartu SPKLTBren hogeita seigarren XGan erabakitakoa , DBLOren 12.2 artikuluaaren aurreikuspenei buruzkoa. (6. espedientea).

#### **Administrazio kontrataziorik gabeko gastua**

- Udalak ez ditu gastuak exekutatzean prozedura negoziatu bitartez administrazio-kontratazioko derrigorrezko espedienteak izapidetu kasu hauetan: asfaltatze lanei dagozkien gastuetan (120.803 euro), telefonia zerbitzuei dagozkienetan (50.918 euro) eta eraikuntzako materialen hornidura gastuetan (31.962 euro).

#### **III.4 BESTE BATZUK**

- Udalak ez du Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasun eta baliabideen zerrendarik (Lurraren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 112.3 artikulua).



#### IV. FINANTZA ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2014(*)	2015(*)	2016	2014	2015	2016
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	12.419	13.423	12.610	634	685	640
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	12.001	12.912	12.924	612	658	656
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	98	55	139	5	3	7
<b>A. Diru-sarrera arruntak .....</b>	<b>24.518</b>	<b>26.390</b>	<b>25.673</b>	<b>1.251</b>	<b>1.346</b>	<b>1.303</b>
Langile gastuak (kap.1) .....	7.784	7.878	7.738	397	402	393
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.) .....	9.419	9.923	9.770	481	506	496
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	3.577	3.645	3.890	182	186	197
<b>B. Funtzionamendu gastuak.....</b>	<b>20.780</b>	<b>21.446</b>	<b>21.398</b>	<b>1.060</b>	<b>1.094</b>	<b>1.086</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B).....</b>	<b>3.738</b>	<b>4.944</b>	<b>4.275</b>	<b>191</b>	<b>252</b>	<b>217</b>
- Finantza gastuak (3. kap.).....	7	3	9	-	-	-
<b>Emaitza arrunta.....</b>	<b>3.731</b>	<b>4.941</b>	<b>4.266</b>	<b>191</b>	<b>252</b>	<b>217</b>
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	439	441	527	23	22	27
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>3.292</b>	<b>4.500</b>	<b>3.739</b>	<b>168</b>	<b>230</b>	<b>190</b>
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	683	4	1.470	35	-	75
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	187	768	105	9	39	5
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	1.981	3.170	2.459	101	162	125
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	77	110	94	4	5	5
<b>Kapitaleko eragiketen emaitza.....</b>	<b>(1.188)</b>	<b>(2.508)</b>	<b>(978)</b>	<b>(61)</b>	<b>(128)</b>	<b>(50)</b>
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.).....	2.543	2.433	3.288	130	124	167
Diruzaintzako Geldikina .....	5.585	7.392	10.484	285	377	532
Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina .....	5.405	6.914	9.784	276	353	496
Zorpetzea.....	1.461	1.460	1.458	75	74	74

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** % 5 egin dute gora aztertutako aldirian. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera hauek aurreko ekitaldiarekiko % 8 egin dute gora 2015ean eta % 6 murriztu dira 2016an, 2014an izan zituzten mailetara itzuliz (aztertutako aldirian % 1,5eko igoera). EIOZ kontzeptuan aitortutako diru-sarreraren eragina kentzen badugu, epe horretan izandako igoera % 0,5era murrizten da. Esan beharrean gaude Udalak ez zuela adierazitako hiru ekitaldietan tarifetan eta tipo zergagarrietan igoerarik aplikatu. Bariazio nagusiak honako hauek izan dira:
  - **Zerga zuzenak:** Guztizko sarrerak ez dute aldaketarik izan aztertutako aldirian, JEZ kontzeptuko sarrerak % 21 murriztu diren arren; bada, berdindu egin da gainerako zergek izan duten bilakaera positiboaren ondorioz.



- **Tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek izan duten igoera % 1 baino zertxobait handiagoa izan da aztertutako aldian eta azpimarratzekoa da Hiri Hondakin Solidoak birziklatzetik eratorritako sarreretan izan den % 31ko igoera eta lurzorua, hegala eta lur azpia okupatzeagatiko tasari dagozkion sarreren % 21eko murrizketa.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Sarrera hauek ia % 8 egin dute gora aztertutako aldian; igoera hau UFFFetik eratorritako itunpeko zergen kontzeptuan aitortutako sarrerek izan duten antzeko igoera da, nahiz zertxobait txikiagoa. Gainerakoan, EAetik eratorritako sarreretan ere igoerak izan dira (% 14), GFAtik jasotako gainerako transferentzia eta diru-laguntzei dagozkien sarrerek behera egin izanarekin berdindu direnak.

**Funtzionamendu gastuak:** Aztertutako aldian sarrera arruntek baino gehiago egin dute gora (% 3). Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile gastuak:** 2015ean aurreko ekitaldiaren aldean % 1eko igoera baino zertxobait handiagoa izan dute, 2016an gastuak izan duen beheraldiarekin berdindu dena, 2014ko mailaz azpitik kokatzen delarik, % 1eko ordainsari igoera aplikatu den arren (ikus A.6). Gogoan izan behar da 2015ean borondatezko 5 erretiro izan zirela eta 2016an bakarra, kontzeptu horrek berekin dituen gastuak murriztuaz.
- **Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa:** Aurrekontuko kapitulu honetan gastuak % 4 egin du gora aztertutako aldian, nahiz 2016an % 1,5 murriztu den aurreko ekitaldiarekiko, non % 5eko igoera gertatua zen. Gastu guztiek ez dute bilakaera bera izan eta azpimarratzekoa da, termino absolutuetan, behera egin dutela mantentze eta ibilgetua zaintzeko gastuek eta aldiz, gora egin dutela hondakinen kudeaketarekin lotutako gastuek.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** Aztergai izan dugun aldian, kontzeptu honengatik gastuek % 9 egin dute gora; azpimarratzekoa da 2016ko ekitaldian aurrekoaren aldean Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialei egindako ekarpenak izan duen % 8ko igoera. Gogoan izan behar da erakunde autonomo honi egiten zaizkion ekarpenak kapituluko gastu guztien gainean ia % 50 egiten dutela aztertutako aldi guztian.

**Aurrezki gordina eta aurrezki garbia:** Bi magnitudeek antzeko bilakaera izan dute, 2015ean aurreko ekitaldiarekiko % 30etik gorako igoerak izan dituztelarik; ordea, apaldu egin dira 2016an izandako beheraldien ondorioz eta bi magnitudeentzat aztertutako aldi osoan % 14 inguruko igoerak izan dira.

**Kapital eragiketen emaitza:** Magnitude honek aztertutako aldi osoan saldo negatiboa erakutsi du, nahiz defizitak murrizten ari diren egiazko inbertsioek eragindako gastuak gora egin arren (% 24); gastu hau berdindu egin da hirigintzaren jardueratik eratorritako sarrerek izan duten igoerarekin, egiazko inbertsioen besterentzea kapituluaren erregistratuak (ikus A.5). Aztertutako ekitaldi guztietan aurrezki garbi positiboak berdindu egiten ditu kapital eragiketen emaitza negatiboak.



**Eragiketa ez finantzarioen emaitza:** Positiboa da aztertutako aldi osoan, non % 29ko igoera izan duen.

**Diruzaintza geldikina:** Honako hau ere positiboa izan da aztertutako aldi osoan zehar eta izan duen bariazioa % 88koa izan da.

**Zorpetzea:** Zorpetze zifrak ez du ia aldaketarik izan aztertutako aldian zehar.

**Ondorioa:** Udalaren kontuek azken ekitaldietan izandako aurrezki garbiak urteko inbertsio kopuru handiagoa izateko bide emango luke. Horrek guztiak Udala kaudimen ekonomikoko egoeran jartzen du, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideak dituela eta zorpetu beharrik izan gabe, etorkizuneko inbertsioei berezko baliabideekin aurre egiteko edo are, zorpetzearen egungo bolumena murrizteko.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Azaroaren 2ko 1463/2007 EDren 16.2 artikuluan agindutakoari jarraikiz, zeinak toki-entitateei dagokienez Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko erregelamendua onesten duen, Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena jaulki zuen aurrekontuaren, zor publiko eta gastuaren arauaren helburuak bete zirela egiaztatuz. Txostenak Udalari eta bere organismo eta mendeko entitateei dagokienez ondotik zehaztutakoa jasotzen du 2016ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioari dagokionez:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da finkatutako terminoetan eragiketa ez finantzarioetan superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2015eko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariazioak ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGren erreferentziazko hazkuntza tasa gainditu (% 1,8).
- Zor publikoaren helburua bete da, 2016ko abenduaren 31n zor bizia 2015ean kitatutako sarrera arrunten % 5 izan delako, Gipuzkoako toki entitateek 2016. urteko aurrekontuak mamitu, onartu eta egikaritzean bete beharko dituzten arauak finkatzen dituen Izapideak agindutako % 80ko mugaz oso beheiti; arau horiek Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2015eko azaroaren 17an onartu zituen.

**V. URTEKO KONTUAK****V.1 UDALA**

2016-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB.	KOB.R.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1. Zerga zuzenak .....	A.3	6.167	-	6.167	6.326	6.044	282	% 103
2. Zeharkako zergak .....	A.3	353	-	353	411	398	13	% 116
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	5.620	102	5.722	5.873	5.351	522	% 103
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	12.786	110	12.896	12.924	12.619	305	% 100
5. Ondare sarrerak .....		60	-	60	139	106	33	% 232
6. Inbertsio errealak besterentzea .....	A.5	1.057	332	1.389	1.470	1.462	8	% 106
7. Kapital transferentziak .....	A.4	8	84	92	105	34	71	% 114
8. Finantza aktiboak .....		-	6.302	6.302	77	2	75	E/E
9. Finantza pasiboak .....	A.10	525	-	525	525	525	-	% 100
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>26.576</b>	<b>6.930</b>	<b>33.506</b>	<b>27.850</b>	<b>26.541</b>	<b>1.309 (*)</b>	<b>% 102</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulatzeko Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1. Langileria-gastuak .....	A.6	8.335	108	8.443	7.738	7.734	4	% 92
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosk. ....	A.7	9.967	648	10.615	9.770	8.408	1.362	% 92
3. Finantza gastuak .....		18	-	18	9	9	-	% 50
4. Transferentzia arruntak .....	A.8	4.253	442	4.695	3.890	3.414	476	% 83
5. Kreditu globala .....		160	(86)	74	-	-	-	-
6. Inbertsio errealak .....	A.9	3.206	5.818	9.024	2.459	1.878	581	% 27
7. Kapital transferentziak .....	A.8	107	-	107	94	94	-	% 88
8. Finantza aktiboak .....		-	-	-	2	2	-	E/E
9. Finantza pasiboak .....	A.10	530	-	530	527	527	-	% 99
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>26.576</b>	<b>6.930</b>	<b>33.506</b>	<b>24.489</b>	<b>22.066</b>	<b>2.423</b>	<b>% 73</b>

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak .....	2.998	(235)	(1.630)	1.133
Ordaintzeko dauden saldoak .....	(2.095)	-	2.095	
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>		<b>(235)</b>		



<u>AURREKONTUAREN EMAITZA</u>	<u>Euroak milakotan</u>
Kitatutako eskubideak.....	27.850
Aitortutako obligazioak.....	(24.489)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>3.361</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(235)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>3.126</b>
Finantziario desbideratzeak.....	(217)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak.....	1.749
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>4.658</b>
<u>DIRUZAINITZA GELDIKINA</u>	<u>Euroak milakotan</u>
Diruzaintzako funts likidoak (A.13).....	12.604
Aitortutako eskubideengatiko zordunak (ikus A.11).....	2.442
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.11).....	37
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak (ikus A.12).....	(2.423)
Aurrekontuz kanpoko zordunak (ikus A.12).....	(1.113)
Aplikatu gabeko kontu-sailak.....	11
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINITZA GELDIKIN GORDINA</b>	<b>11.558</b>
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak (ikus A.11).....	(1.074)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINITZA GELDIKIN LIKIDOA</b>	<b>10.484</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza Geldikina.....	(700)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINITZA GELDIKINA 16.12.31-N</b>	<b>9.784</b>
<b>ZORPETZEA 2016/12/31-N (ikus A.10)</b>	<b>1.458</b>





BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSK	16/12/31	PASIBOA	ERANSK	16/12/31
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>A.9</b>	<b>54.531</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>		<b>64.188</b>
Ibilgetu ukiezina.....	A.9	3.037	Ekarritako ondarea.....		31.418
Ibilgetu materiala.....	A.9	40.245	Sortutako ondarea.....		32.682
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.9	1.555	Jasotako diru-lag., egozteko daudenak.....		88
Lurraren ondare publikoa.....	A.9	-			
Taldeko enpresetan inbertsioak.....	A.9	9.694			
			<b>PASIBO EZ KORRONTEA.....</b>	<b>A.10</b>	<b>1.038</b>
			Epe luzeko zorrak finantza erakundeekin ...		1.038
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>		<b>14.674</b>			
Salgai dauden aktiboak.....	A.11	147	<b>PASIBO KORRONTEA.....</b>	<b>A.12</b>	<b>3.979</b>
Zord. eta kobratz. bste knt. btzu e/lab .	A.11	1.331	Zorrak epe laburrera.....		1.318
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	A.11	592	Hartz. eta ordaintz. bste kontu batz. ....		2.661
Eskud. eta best. aktibo likido baliokideak	A.13	12.604			
<b>AKTIBOA</b>		<b>69.205</b>	<b>PASIBOA</b>		<b>69.205</b>

2016-KO EKITALDIKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	16/12/31		16/12/31
Langileria-gastuak.....	7.751	Zerga eta hirigintzako diru-sarr. ....	13.050
Emandako transf. eta diru-laguntzak.....	3.984	Jasotako transf. eta diru-laguntzak.....	12.891
Kudeaketa arrunteko bst gastu batzuk.....	10.700	Salmenta garbiak eta zerbitzu ematea.....	58
Ibilgetuaren amortizazioa (Ikus A.9).....	2.025	Kudeak. arrunteko beste sarr. batz. ....	783
<b>KUDEAK. ARR.GASTUAK GUZT.</b>	<b>24.460</b>	<b>KUDEAK. ARR.GASTUAK GUZT.</b>	<b>26.782</b>
		<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>2.322</b>
		Beste kontusail ez arrunt batzuk.....	711
		<b>ERAGIKETA EZ FINANTZ. EMAITZA</b>	<b>3.033</b>
		Finantza sarrerak.....	92
		Beste batzuk.....	(64)
		<b>ERAG. FINANTZ. EMAITZA</b>	<b>28</b>
		<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>3.061</b>



## V.2 HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK

2016-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB.	KOB.R.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.15	1.892	50	1.942	1.970	1.940	30	% 101
4. Transferentzia arruntak .....	A.15	5.835	101	5.936	5.855	5.307	548	% 99
5. Ondare sarrerak .....	A.15	1	-	1	1	-	1	% 100
7. Kapital transferentziak .....		13	-	13	-	-	-	E/E
8. Finantza aktiboak .....		-	128	128	-	-	-	E/E
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>7.741</b>	<b>279</b>	<b>8.020</b>	<b>7.826</b>	<b>7.247</b>	<b>579(*)</b>	<b>% 99</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulatzeko Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1. Langileria-gastuak .....	A.15	3.838	50	3.888	3.888	3.887	1	% 100
2. Ondasun arrunt eta zerb. erosketak ....		3.539	154	3.693	3.401	3.107	294	% 92
4. Transferentzia arruntak .....		351	75	426	361	349	12	% 85
6. Inbertsio errealak .....		13	-	13	12	12	-	% 92
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>7.741</b>	<b>279</b>	<b>8.020</b>	<b>7.662</b>	<b>7.355</b>	<b>307</b>	<b>% 96</b>

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak .....	480	-	(467)	13
Ordaintzeko dauden saldoak .....	534	-	534	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>		-		



<u>AURREKONTUAREN EMAITZA</u>	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	7.826
Aitortutako obligazioak.....	(7.662)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>164</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>164</b>
Finantziario desbideratzeak.....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak.....	60
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>224</b>
<u>DIRUZAINZA GELDIKINA</u>	Euroak milakotan
Diruzaintzako funts likidoak.....	261
Aitortutako eskubideengatiko zordunak.....	592
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak.....	-
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak.....	(307)
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak.....	(249)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZA GELDIKIN GORDINA</b>	<b>297</b>
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	(12)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA</b>	<b>285</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza Geldikina.....	-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA 16/12/31-N</b>	<b>285</b>
<b>ZORPETZEA 2016/12/31-N</b>	<b>-</b>



BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	2016/12/31	PASIBOA	2016/12/31
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>11.458</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>11.742</b>
Ibilgetu materiala .....	11.457	Ekarritako ondarea .....	10.742
Taldeko enpresetan partaid.....	1	Sortutako ondarea .....	1.000
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>840</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>556</b>
Zord. eta kobratz. bste knt. btzu e/lab .....	579	Zorrek epe laburrera.....	16
Eskud. eta best. aktibo likido baliokideak .....	261	Hartz. eta ordain. beste kontu batz .....	540
<b>AKTIBOA</b>	<b>12.298</b>	<b>PASIBOA</b>	<b>12.298</b>

2016-KO EKITALDIKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	2016/12/31		2016/12/31
Langileria-gastuak .....	3.889	Zerga eta hirigintzako diru-sarr. ....	1.961
Emandako transf. eta diru-laguntzak.....	361	Jasotako transf. eta diru-laguntzak.....	5.855
Kudeaketa arrunteko bst gastu batzuk.....	3.400	Kudeak. arrunteko beste sarr. batz.....	10
Ibilgetuaren amortizazioa.....	222		
<b>KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.</b>	<b>7.872</b>	<b>KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.</b>	<b>7.826</b>
		<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITA</b>	<b>(46)</b>
		Beste kontusail ez arrunt batzuk .....	-
		<b>ERAGIKETA EZ FINANTZ. EMAITZA</b>	<b>(46)</b>
		<b>ERAG. FINANTZ. EMAITZA</b>	<b>(6)</b>
		<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>(52)</b>



### V.3 EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA

#### 2016-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB.	KOB.R.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....		6	-	6	7	6	1	% 117
4. Transferentzia arruntak .....	A.16	268	-	268	269	182	87	% 100
7. Kapital transferentziak .....	A.16	94	47	141	141	96	45	% 100
8. Finantza aktiboak .....		-	212	212	-	-	-	E/E
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>368</b>	<b>259</b>	<b>627</b>	<b>417</b>	<b>284</b>	<b>133(*)</b>	<b>% 100</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulatzekoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1. Langileria-gastuak .....		42	-	42	40	40	-	% 95
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erok. ....		201	-	201	181	176	5	% 90
4. Transferentzia arruntak .....		31	5	36	33	26	7	% 92
6. Inbertsio errealak .....		94	179	273	197	196	1	% 72
9. Finantza pasiboak .....		-	75	75	75	-	75	% 100
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>368</b>	<b>259</b>	<b>627</b>	<b>526</b>	<b>438</b>	<b>88</b>	<b>% 84</b>

#### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIER	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA
Kobratzeko dauden saldoak .....	197	(1)	(196)	-
Ordaintzeko dauden saldoak .....	(9)	-	9	-
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>		<b>(1)</b>		



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	417
Aitortutako obligazioak.....	(526)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(109)</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(1)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>	<b>(101)</b>
Finantziario desbideratzeak.....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak.....	136
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>26</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintzako funts likidoak.....	60
Aitortutako eskubideengatiko zordunak.....	133
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak.....	-
Aitortutako obligazioengatiko hartzekodunak.....	(88)
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak.....	(4)
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZA GELDIKIN GORDINA</b>	<b>101</b>
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	-
<b>AURREKONTU KORRONTEKO DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA</b>	<b>101</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza Geldikina.....	-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA 16.12.31-N</b>	<b>101</b>
<b>ZORPETZEA 2016/12/31-N</b>	<b>-</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	31/12/16	PASIBOA	31/12/16
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA</b>	<b>1.664</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>1.765</b>
lbilgetu materiala .....	1.664	Ekarritako ondarea .....	566
		Sortutako ondarea .....	1.070
		Jasotako diru-lag., egozteko daudenak .....	129
<b>AKTIBO KORRONTEA</b>	<b>193</b>	<b>PASIBO KORRONTEA</b>	<b>92</b>
Zordunak eta kobr. bste knt. btzu e/lab .....	133	Zorrak epe laburrera.....	3
Eskud. eta best. aktibo likido baliokideak .....	60	Taldeko entitateekin zorrak e/lab.....	75
		Hartzekod. eta ord. beste kontu batz .....	14
<b>AKTIBOA</b>	<b>1.857</b>	<b>PASIBOA</b>	<b>1.857</b>

2016-KO EKITALDIKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA Euroak milakotan

	31/12/16		31/12/16
Langileria-gastuak .....	40	Zerga eta hirigintzako diru-sarr. ....	5
Emandako transf. eta diru-laguntzak.....	33	Jasotako transf. eta diru-laguntzak.....	281
Kudeaketa arrunteko bst gastu batzuk.....	255	Kudeak. arrunteko beste sarr. batz.....	2
lbilgetuaren amortizazioa.....	34		
<b>KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.</b>	<b>362</b>	<b>KUDEAK. ARR. GASTUAK GUZT.</b>	<b>288</b>
		<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITA</b>	<b>(74)</b>
		Beste kontusail ez arrunt batzuk .....	-
		<b>ERAGIKETA EZ FINANTZ. EMAITZA</b>	<b>(74)</b>
		<b>ERAG. FINANTZ. EMAITZA</b>	<b>-</b>
		<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>(74)</b>







## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZATUTAKO ENTEAREN IZAERA

Hernaniko Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Lege horiek artikulatuan udalek dituzten gaitasunak edo ematen dituzten zerbitzu publikoak definitzen dituzte; aipatzekoak dira besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Zerbitzu horiek guztiak nagusiki hauen bitartez finantzatzen dira:

- Udal zergak.
- Berariaz aurrez aipatutako zenbait zerbitzu finantzatzen dituzten tasa eta prezio publikoak.
- Partaidetza itunpeko zergetan eta ez itunpekoetan.
- Ondare sarrerak
- Diru-laguntzak
- Kreditu eragiketak

Kudeaketa zuzen edo zeharka udalek eman dezakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

### A.2 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

2016ko ekitaldirako aurrekontua 2015eko abenduaren 22ko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hil bereko 28an eman zen argitara. Data horretatik aurrera 15 lanegun igaroak zirela, behin betiko onartua gelditu zen, zuzenketa eskerik batere aurkeztu ez zelako. Behin betiko onetsitako aurrekontua 2016ko urtarrilaren 22an argitaratu zen GAOn.



Ondoren, 2016ko aurrekontu aldaketak kapituluka xehatuko ditugu:

KAPITULUA	Euroak milakotan				
	KREDITU GEHIKUNTZA	KREDITU OSAGARRIAK	KREDITU GAIKUNTZA	TRANSFER. GARBIAK	GUZTIRA
1. Langileria-gastuak.....	-	108	-	-	108
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. erosketak.....	153	262	134	99	648
4. Transferentzia arruntak.....	410	40	-	(8)	442
5. Kreditu globala.....	-	100	-	(186)	(86)
6. Inbertsio errealak.....	3.201	2.028	494	95	5.818
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>3.764</b>	<b>2.538</b>	<b>628</b>	<b>-</b>	<b>6.930</b>

Aipatutako aldaketak, kredituak gaitzea salbuetsita, 2015eko ekitaldi amaieran erabilgarri zegoen Diruzaintza Geldikinaren zati batekin finantzatu dira, 6,3 milioi euroren zenbatekoan.

Aurrekontuko aldaketa hauek % 26 igo dira, hasiera bateko 26,6 milioi euroren hasierako aurrekontua izatetik 33,5 milioi euroren behin betiko aurrekontua izatera aldatuz. Ekitaldian zehar aurrekontua aldatzeko 8 espediente izapidetu dira, bat Udalbatzak onartutakoa eta gainerako Alkatetzaren Dekretu bitartez. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:

PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Etxeberri auzoaren urbanizazioa.....	853
Ikastetxeetan eraikuntza lanak.....	727
Elorrabiko zubia.....	451
Karabel auzoaren urbanizazioa Uholdeetarako hitzarmena.....	265
Atletismo ondoko haur-parkea estaltzeko lanak.....	260
Garapenean laguntzeko programak.....	146
Kiroldegiko aldagelak.....	134
Gazteentzat etxebizitza alokatzeko laguntzak.....	125
Bestelako txikiago batzuk.....	803
<b>TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA</b>	<b>3.764</b>
Kiroldegiko igerilekuak II. fasea.....	973
Landare poligonoko errepidea.....	400
Hondakinak: organikoa eta errefusa.....	143
Bestelako txikiago batzuk.....	1.022
<b>KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA</b>	<b>2.538</b>
Galarreta inguruko sistema orokorra.....	332
Bestelako txikiago batzuk.....	296
<b>GAIKUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>628</b>

2016ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2017ko martxoaren 24ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2017ko ekainaren 20ko Udalbatza bitartez.

2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak dira abenduaren 15eko 86/2015 FDren arabera formulatzen diren lehenengoak, Gipuzkoako toki entitateen kontularitzaren esparru



arautzailea onartzen duena. Hori dela eta, aipatu arauaren 2. XGk arautzen duenaren arabera, ez da islatuko balantzean, ez ekonomia-ondare emaitzaren kontuan, ez konparaziozko informaziorik jaso duten gainerako egoeretan ere, aurreko ekitaldiari buruzko zifrarik; oroitidazkian, ordea, ohar bat jasoko da, non 2016ko ekitaldiko irekiera saldoen eta aurreko ekitaldiko itxierakoen arteko aldeak azalduko diren eta kontularitzako arau berriak ezarrita egin diren doiketa berriak zehaztuko dira.

### A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2016ko ekitaldian zehar zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrereren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	3.775
TMIZ.....	1.466
HILBIZ.....	283
JEZ.....	802
<b>ZERGA ZUZENAK GUZTIRA</b>	<b>6.326</b>
EIOZ.....	411
<b>ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA</b>	<b>411</b>
Ur hornidura eta estolderia .....	1.907
Hondakinen bilketa eta tratamendua .....	848
Udal kiroldegia: Sarrerak, ikastaroak eta jarduerak, igerilekuak eta instalazioen alokairua.....	993
Enpresa hornitzaileek, hegala, lurra eta lur azpia okupatzea.....	586
Paper eta ontzi arinen salmentagatiko sarrerak .....	383
Bestelako txikiago batzuk.....	1.156
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>5.873</b>
<b>1, 2 ETA 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>12.610</b>

Añarbeko Uren Mankomunitateak Hernaniko udalerrian lehen mailako sarean ura eta saneamendua hornitzeko zerbitzuak ematen ditu eta bere gain ditu zerbitzu horiei lotutako tasen kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritza; tasa horiek Udalak finkatzen ditu dagozkion aginduak onartuta. Udalak kontularitzen 2016ko ekitaldiari egotzi zizkion 2015eko azken lauhilekoan emandako zerbitzuei lotutako sarrerak, baina ez zituen 2016ko hirugarren lauhilekoari zegozkionak erregistratu, 662.355 euroren zenbatekoa egin zutenak (ikus II.2 atala).

Honekin baterako taulan erregistraturiko gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartua du borondatezko ordainketaren kudeaketa eta lankidetzaren hitzarmena du GFArekin derrigorrezko diru-bilketa egiteko.



#### A.4 TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2016ko ekitaldian transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZKOAK
<b>Estatuko Administrazioarenak</b>	<b>21</b>	<b>-</b>
<b>EA Erenak</b>	<b>779</b>	<b>92</b>
HABE: Euskaltegiei laguntzak .....	260	-
AO: Helduen Lanbide Heziketa .....	156	-
AO: Musika Eskola .....	124	-
AO: Ingurumenari laguntzak .....	83	-
Lanbide (Andoaingo Udala): Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak (ikus A.8) (*) .....	73	-
AO: Ikastetxeetan inbertsioak Laubidetako obrak .....	-	80
Obra txikiak .....	83	12
<b>GLHrenak</b>	<b>12.121</b>	<b>13</b>
Itunpeko zergetan partaidetza UFFF .....	11.975	-
Beste txikiago batzuk .....	146	13
<b>Irabazi asmorik gabeko entitateenak</b>	<b>3</b>	<b>-</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>12.924</b>	<b>105</b>

(\*) Andoaingo Udalak koordinaturiko eskualde mailako programa.

Itunpeko zergetan partaidetza kontzeptuan erregistraturiko diru-sarrerak 2016ko ekitaldiko UFFFren likidazioari dagozkio; horren saldoa, GFaren aldeko 254.928 eurorena, ekitaldi itxieran ordaintzeko modura ageri zen aurrekontuz kanpoko kontu batean (ikus A.12).

#### A.5 EGIAZKO INBERTSIOEN BESTERENTZEA

2016ko ekitaldian aurrekontuko kapitulu honetan kitatutako eskubideen xehapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ESKUB.	KITATUAK
Hirigintzako kuotak .....	332	
Hirigintzako aprobetxamenduak .....	1.047	
Hirigintzako beste sarrera batzuk .....	91	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.470</b>	

Honekin baterako taulan islatutako hirigintzako kuota guztiak eta hirigintzako aprobetxamendu gehienak, 1 milioi eurorenak, “(HK) GA.09 Galarreta (Young Play)” eremuko lurraren jabe bakarrak ordaindu zituen, aipatutako jabearen eta Udalaren artean



izenpetutako hirigintzako hitzarmenean jasotako baldintzen arabera, Udaltzak behin betiko 2016ko irailaren 27an onartu zuena. (ikus A.14).

## A.6 LANGILERIA GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2016ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZ. AITORT. 2016	OBLIGAZ. AITORT. 2015	LANPOSTU KOP.	
			LZ	PLANTILLA
Udalkideak .....	144	95	E/E	6
Behin-behineko langileak.....	88	112	3	3
Funtzionarioak.....	5.546	5.553	143	164
Aldi baterako lan-kontratuko langileak .....	201	179	E/E	6
Gizarte Segurantza .....	1.558	1.620		
Elkarkidetza.....	118	119		
Bestelako gizarte gastuak .....	83	199		
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.738</b>	<b>7.877</b>	<b>146</b>	<b>179</b>

(\*) 58 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu.

## Ordainsariak

Udalak 2016an ordaindutako ordainsariak % 1eko igoera izan zuten aurreko ekitaldiekiko, 2016ko urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legearen 19.2 artikulua finkatzen duen mugaketa gordez.

2016ko ekitaldian beste gastu sozial batzuen kontzeptuan aitortutako obligazioen zenbatekoak 26.645 euro barne hartzen ditu, langile bati ordaindutako borondatezko erretiro sari bati dagozkionak, 2016ko ekitaldian indarrean zegoen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenak (Udalhitz) horren gainean jasotako aurreikuspenak baliatuta.

## LZ eta plantilla

2016ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Karrerako funtzionarioak.....	-	(*) 1
Bitarteko funtzionarioak.....	137	144
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	12	9
<b>GUZTIRA</b>	<b>149</b>	<b>154</b>

(\*) Baja erretiroak eragin zuen.

Musika eskolako eta udal euskaltegietako langileak kontratatuzko Udalak bi figura hauek baliatzen ditu: programako bitarteko funtzionarioa edo lanak indartzeko bitarteko

funtzionarioa. Oinarrizko lanbide heziketaren programaren kasuan, langile beharriaz aurre egiteko aldi baterako lan kontratuak egiten dira.

## A.7 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuenen xehapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	D fasea	Obligaz. aitort.
<b>Errentamenduak</b>	<b>1</b>	<b>1</b>
<b>Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza</b>	<b>995</b>	<b>947</b>
Azpiegitura eta erabil. orok. ondas.....	422	382
eraikin eta bestelako eraikuntzena .....	366	362
Makineria, instalaz. eta tresneriarena .....	87	83
Beste ibilgetu batena .....	120	120
<b>Bulegoko materiala</b>	<b>32</b>	<b>32</b>
<b>Hornidurak</b>	<b>1.717</b>	<b>1.714</b>
Energia elektrikoa .....	564	564
Ura eta saneamendua .....	913	913
Gasa eta erregaiak .....	144	144
Bestelako hornidurak .....	96	93
<b>Komunikazioak</b>	<b>243</b>	<b>243</b>
<b>Aseguru sariak</b>	<b>76</b>	<b>76</b>
<b>Tributuak</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>Hainbat gastu</b>	<b>1.414</b>	<b>1.298</b>
Gazteri ataleko proiektuak .....	388	371
Berdintasun ataleko proiektuak.....	256	213
Gaztelekuren kudeaketa .....	66	66
Publizitatea .....	56	53
Hondakinen atez ateko bilketa zerbitzua: likidazioa.....	36	36
Bestelako hainbat gastu .....	612	559
<b>Kanpoko enpresek egindako lanak</b>	<b>5.535</b>	<b>5.446</b>
Udal areto eta eraikinen garbiketa .....	2.259	2.259
Hondakinak biltzeko zerbitzua .....	1.199	1.199
Lorategiak mantendu eta zaintzeko lanak .....	438	438
Hondakinen kudeaketa .....	413	413
Hezkuntza proiektuak .....	339	339
Azterketa eta lan teknikoak .....	212	212
Sorospen zerbitzua .....	122	122
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	553	464
<b>Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak</b>	<b>13</b>	<b>13</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.026</b>	<b>9.770</b>



Garbitania Zero Zabor, SL (ikus A.9) partaidetutako enpresak bere gain du Hernaniko udalerrian hiri hondakin solido gehienen bilketa eta kudeaketa; baita horien zati baten tratamendua ere, eta San Markoko mankomunitateak hartzen du bere gain aipatutako mandatuan jaso gabeko hondakin kudeaketa gaietan udal eskumenik handiena. Hain zuzen ere, honekin baterako taulan jasotako hiri hondakin solidoak bildu, kudeatu eta tratatzeko gastuak partaidetutako sozietatearen eta mankomunitatearen fakturazioari dagozkie, hurrenez hurren 1,2 milioi euro eta 402.386 euroren zenbatekoan; baita, beste hirugarren batzuek emandako beste zerbitzu txiki batzuei ere.

## A.8 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZAK

2016ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta diru-laguntza korronteak eman ditu; hona hemen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan					
	KORRONTEAK			KAPITALEZKOAK		
	TXERT. AURREK. 2015	KREDIT. 2016	AURREK. O FASEA	TXERT. AURREK. 2015	KREDIT. 2016	AURREK. O FASEA
<b>TRANSFERENTZIAK</b>	-	<b>2.698</b>	<b>2.698</b>	-	<b>94</b>	<b>94</b>
Talde politikoei ekarpenak .....	-	71	71	-	-	-
Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak (ikus A.15).....	-	1.904	1.904	-	-	-
Ereñotzu (Ikus A.16).....	-	269	269	-	94	94
San Marko Mankomunitatea.....	-	257	257	-	-	-
Behemendi Landa Garapenerako Elkartea .....	-	81	81	-	-	-
Beste txikiago batzuk (7entitate) .....	-	116	116	-	-	-
<b>IZENDUNAK</b>	<b>7</b>	<b>475</b>	<b>482</b>	-	-	-
Dobera Euskara Elkartea .....	-	95	95	-	-	-
Hernaniko Musika Banda .....	-	83	83	-	-	-
Autobusa Mikrobasa Ugarte, SL.....	-	78	78	-	-	-
Hernaniko Elkarrekin Multikulturala (AMHER) .....	-	55	55	-	-	-
Euskal Funtza .....	-	40	40	-	-	-
Beste txikiago batzuk (17 onuradun).....	7	124	131	-	-	-
<b>LEHIA ERREGIMENEAN EMANDAKOAK</b>	<b>227</b>	<b>366</b>	<b>593</b>	-	-	-
Garapenerako laguntza programak.....	146	50	196	-	-	-
Auzo elkarteei laguntzak.....	3	97	100	-	-	-
Gazteentzako etxebizitza alokairuari laguntzak .....	74	-	74	-	-	-
Programa eta kultur jardueren diru-laguntzak .....	-	70	70	-	-	-
Beste txikiago batzuk.....	4	149	153	-	-	-
<b>ZUZENAK</b>	<b>71</b>	<b>46</b>	<b>117</b>	-	-	-
Euskaraz, Kooperatiba Elkartea.....	33	-	33	-	-	-
FIARE fundazioa etxebizitzaren baliabideak.....	30	-	30	-	-	-
Beste txikiago batzuk (11 onuradun).....	8	46	54	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>305</b>	<b>3.585</b>	<b>3.890</b>	-	<b>94</b>	<b>94</b>

Lezo, Usurbil, Pasaia, Astigarraga eta Hernaniko Udalek auzi prozedurak aurkeztu zituzten San Markoko mankomunitatearen 2014, 2015 eta 2016ko ekitaldietako aurrekontuen aurka,



udalerriek egin beharreko ekarpenak kalkulatzeko baliatutako kontularitzako metodologia okerra zela iritzita. 2015ean EHJANek demanda aurkeztu zuten udalen interesen aldeko epaia ebatzi zuen, Mankomunitateak kasazioan errekurritu zuena, eta Auzitegi Gorenak 2017ko urrian berriz ebatzi zuen epaia lehenengo erakunde instantziako epaia berretsiz. Zehaztu gabe daude, oraindik, 2014tik 2016ra bitarteko ekitaldietan gehiegizko ekarpenengatik udalei itzuli beharreko kopuruak.

## A.9 INBERTSIO ERREALAK ETA AKTIBO EZ KORRONTEA

Hona hemen Udalaren aktibo ez korrronteko kontuen 2016ko kontu-mugimenduak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	SALDOA 16/01/01	EROSK. HAND.	BIRSAILK. ETA BESTE	AMORTIZ. ZUZKID.	SALDOA 16/12/31
<b>IBILGETU UKIEZINA</b>	<b>3.337</b>	-	-	<b>(300)</b>	<b>3.037</b>
Aplikazio informatikoak .....	242	-	-	-	242
Beste ibilgetu ukiezin bat .....	4.252	-	-	-	4.252
Ibilgetu ukiezinako metatutako amortizazioa .....	(1.157)	-	-	(300)	(1.457)
<b>IBILGETU MATERIALA</b>	<b>42.102</b>	<b>451</b>	<b>(622)</b>	<b>(1.686)</b>	<b>40.245</b>
Lurrak eta ondasun naturalak.....	4.190	10	(12)	-	4.188
Eraikuntzak.....	47.686	-	(11.473)	-	36.213
Azpiegiturak .....	-	276	8.642	-	8.918
Ondare historikoko ondasunak .....	-	-	19	-	19
Instalakuntza teknikoak .....	8.127	-	2.199	-	10.326
Beste ibilgetu material bat.....	5.151	165	(5)	-	5.311
Ibilgetu materialeko metatutako amortizazioa.....	(23.052)	-	8	(1.686)	(24.730)
<b>IBILGETUKO INBERTSIOAK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>1.594</b>	<b>(39)</b>	<b>1.555</b>
Alokairuko udal etxebizitzak	-	-	1.749	-	1.749
Higiezin inbertsioen metatutako amortizazioa	-	-	(155)	(39)	(194)
<b>LURRAREN ONDARE PUBLIKOA</b>	<b>-</b>	<b>1.066</b>	<b>(1.066)</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
<b>TALDEKO ENPRESETAN INBERTSIOAK</b>	<b>1.393</b>	<b>-</b>	<b>8.301</b>	<b>-</b>	<b>9.694</b>
<b>AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA</b>	<b>46.832</b>	<b>1.517</b>	<b>8.207</b>	<b>(2.025)</b>	<b>54.531</b>

Ibilgetuko altak ez datoz bat aurrekontuko inbertsio errealen kapituluan aitortutako obligazioekin, izan ere aipatutako kapituluan erregistraturiko zenbait gastu, 942.829 eurorenak, ondarean emaitzetan jasotzen dira.

### Beste mugimendu batzuk

2016ko ekitaldian aktibo ez korrontearen mugimenduak, hein handi batean, zenbait aktibo kontularitzan egozteko moduan aldaketak egin izanaren ondorio dira, kontabilitate plan berria indarrean sartzetik eratorritakoak. Aipatutako aldaketetan dago aurreko ekitaldietan erabilera orokorrerako emandako ondare-kontuan zeuden ondasunak ibilgetu materialera aldatzea eta atxikitako ondarea osatzen zuten ondasunak ibilgetu finantzariora aldatzea. Berebat, erakunde autonomoetara atxikitzeari dagokionez, ibilgetu materialean





erregistraturik zeuden ondasunak ere ibilgetu finantzarioan birsailkatu dira. Alokairuko etxebizitzak ere, orobat, aipatutako idazpurutik higiezin inbertsioenera aldatu dira. Aipatutako birsailkapen horiek guztiak honekin baterako taulan laburbildu ditugu:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	ERAB. OROK. EMAND. ONDAR.	ATXIK. ONDAR.	AKTIBO EZ KTEA.	BIRSAILK. GUZTIRA
<b>IBILGETU MATERIALA</b>	<b>7.836</b>	-	<b>(8.448)</b>	<b>(612)</b>
Ibilgetu materialaren kontularitzako balio gordina	10.900	-	(11.520)	(620)
Ibilgetu materialaren metatutako amortizazioa	(3.064)	-	3.072	8
<b>IBILGETUKO INBERTSIOAK</b>	-	-	<b>1.594</b>	<b>1.594</b>
Ibilgetuko inberts. kontularitzako balio gordina	-	-	1.749	1.749
Higiezin inbertsioen metatutako amortizazioa	-	(155)	(155)	
<b>LURRAREN ONDARE PUBLIKOA</b>	-	-	<b>(1.066)</b>	<b>(1.066)</b>
<b>TALDEKO ENPRESETAN INBERTSIOAK</b>	-	<b>381</b>	<b>7.920</b>	<b>8.301</b>
Aktiboen kontularitzako balio gordina	-	381	10.837	11.218
Atxikitako aktiboen metatutako amortizazioa	-	-	(2.917)	(2.917)
<b>BIRSAILKAP. AKTIBO EZ KORRONTEAREN ALTA/BAJAK GUZTIRA</b>	<b>7.836</b>	<b>381</b>	-	<b>8.217</b>

## Taldeko enpresetan inbertsioak

2016ko ekitaldian Udalaren finantza ibilgetuaren mugimendua honakoa izan da:

PARTAIDETUTAKO ERAKUNDEA	Euroak milakotan			
	% PARTAID. 16/12/31	SALDOA 15/12/31	SALDOA BARIAZ.	SALDOA 16/12/31
Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak .....	% 100	-	7.735	7.735
Ereñotzuko toki entitate txikia.....	% 100	-	566	566
<b>TOKIKO SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEETAN PARTAID.</b>		-	<b>8.301</b>	<b>8.301</b>
Garbitania Zero Zabor, SL (ikus A.7) .....	49,% 9	250	-	250
Beterri Kostako Industrialdea.....	5,% 29	1.131	-	1.131
Beste txikiago batzuk .....		12	-	12
<b>FINANTZA INBERTSIO IRAUNKORRAK KAPITALEAN</b>		<b>1.393</b>	-	<b>1.393</b>
<b>ERAKUNDEETAN PARTAIDETZAK</b>		<b>1.393</b>	<b>8.301</b>	<b>9.694</b>

Aurreko taula eta paragrafoetatik ondoriozta daitekeen moduan, Erakunde Autonomoko eta toki entitate txikiko partaidetzak horietara atxikitako ondasunen kontularitzako balio garbiaren zenbatekoarekin daude balioztatuak. Atxikitako taulan xehatutako gainerako partaidetzen kontularitzako balioa bat dator erosketa kostuarekin.

Partaidetza horien balio berreskuragarria, partaidetutako erakundeen ondare garbiaren bitartez zehazten dena, kontularitzako balioa baino handiagoa da eta honenbestez, Udalak ez du balio-galeragatiko inongo hornidurarik zuzkitu.



## A.10 ZORPETZEA

Ekitaldian zorrak izan duen bilakaera honakoa izan da:

Euroak milakotan							
	% interesa	Iraungip.	Hasierako saldoa	Saldoa 16/01/01	Amort.	Berriak	Saldoa 16/12/31
Kutxabank, SA.....	Euribor 3M + 0,2	2016	601	46	46	-	-
Laboral Aurrezki Kutxa kreditu koop. ....	Euribor 3M + 0,15	2016	601	52	52	-	-
BBVA, SA.....	Urteko Euriborra	2016	2.642	203	203	-	-
Kutxabank, SA.....	Euribor 3M + 0,2	2017	729	143	72	-	71
Laboral Aurrezki Kutxa kreditu koop. ....	Euribor 3M + 0,15	2017	729	137	68	-	69
Caixabank, SA .....	Euribor 3M + 0,15	2021	439	439	86	-	353
Caixabank, SA .....	Euribor 3M + 0,15	2021	440	440	-	-	440
Kutxabank, SA.....	Euribor 3M + 0,58	2021	525	-	-	525	525
<b>ERABILITAKO ZORRA GUZTIRA</b>			<b>6.706</b>	<b>1.460</b>	<b>527</b>	<b>525</b>	<b>1.458</b>
				Epe laburreko iraungipena (ikus A.12)			420
				Epe luzeko iraungipena			1.038

## A.11 ZORDUNAK

Balantzeko zordunen saldoak eta aktibo korronteko beste kontu batzuek honako xehapena zuten 2016ko ekitaldi itxieran:

Euroak milakotan					
KONTZEPTUA	AURREK. ZORD.	AURR.KANP. ZORD.	APLIK. ZAIN	BESTE B.	SALDOA 16/12/31
Salgai dauden aktiboak.....	-	-		147	147
Zordunak eta kobratz. bste knt. btzu e/lab. ....	1.284	37	10	-	1.331
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	84	-	-	508	592
<b>ZORDUNAK ETA BESTE AKTIBO BATZUK GUZTIRA</b>	<b>1.368</b>	<b>37</b>	<b>10</b>	<b>655</b>	<b>2.070</b>



## Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2016ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinatasunaren xehapena:

Euroak milakotan					
KAPITULUAK	2013 eta lehen.	2014	2015	2016	GUZTIRA
Zerga zuzenak .....	161	141	455	282	1.039
Zeharkako zergak .....	20	-	1	13	34
Tasak eta best. sarrerak .....	119	33	56	522	730
Transferentzia arruntak .....	-	-	25	305	330
Ondare sarrerak .....	-	-	1	33	34
Inbertsioen besterentzea .....	-	-	-	8	8
Kapital transferentziak .....	-	-	120	71	191
Finantza aktiboak .....	1	-	-	75	76
<b>AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK GUZTIRA</b>	<b>301</b>	<b>174</b>	<b>658</b>	<b>1.309</b>	<b>2.442</b>
<b>Zalantzako kobragarritasuneko saldoak</b>					<b>(1.074)</b>
<b>AURREK. ZORDUNAK GUZTIRA, ZUZKIDURARIK GABE</b>					<b>1.368</b>

Udalak ez du zorren kobragarritasunari buruzko azterlanik egiten. Eskubideak kalkulatzeko, zeinaren diru-bilketa egitea nekeza edo ezinezkoa den, 2016ko ekitaldiari dagokion Aurrekontua Egikaritzeko Arauak zorren antzinatasunaren arabera zalantzako kobragarritasuneko gutxieneko ehunekoak finkatzen zituen; gutxieneko ehuneko horiek batetik hirura bitarteko kapituluetao zor-saldoei zaizkie aplikagarriak. Zuzkiduraren zenbatekoa gutxieneko ehuneko horiek aplikatuta zehaztu zen, % 100era arte gehitu zirenak urtebetetik gorako antzinatasunarekin bertan behera utzitako zorren kasuan. Berebat, bi urtetik gorako antzinatasuna zuten kobratzeko saldo guztiak ere % 100ean zuzkitu ziren, aurrekontuko zein kapitulutakoak diren axola gabe, GLHren Toki Entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 FAREN 48.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Urtebete eta bi urte bitarteko antzinatasuna zuten balio gabe utzitako ia zor gehienek % 5eko hobari-eskaerak ebazteko zituzten. Zor horiei dagokienez, aipatutako zenbatekoaren ordainketaren jatorria soilik jartzen zenez gero zalantzan, gainerakoa, 287.943 euroren zenbatekoduna, ez zela nekez edo ezin eginekotzat jo ulertzen dugu (ikus II.2 atala).

## Beste batzuk

2016ko otsailean donostiar bat hil zen eta bere ondasunen jaraunsle Errenteria, Pasaia, Andoain eta Hernaniko Udalak izendatu zituen, zati berdinetan, baliabiderik eta senitarteko edo hurbilekorik gabeko hirugarren adineko pertsonen beharrian gauzako eta psikikoak artatzeko: bada, 2016ko uztailaren 26an adierazitako udalei jaraunspena onartu eta esleitzen duen idazkia eman zitzaien.

Egindako balorazioen ondorioz, Hernaniko Udalak 2016ko ekitaldi itxieran jaraunsletzan jasotako ondasunak kontabilizatuak zituen ondoko xehapenaren arabera:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	KITATUTAKO ESKUBIDEAK
Salmentarako aktiboak: Jaraunsletzan jasotako higiezinak.....	147
Finantza inbertsioak epe laburrera Jaraunsletzan jasotako eskudirua, balioak eta eskubideak .....	(*) 502
<b>GUZTIRA</b>	<b>649</b>

(\*) Gainera, Udalak kopuru txikiagoko epe laburreko beste finantza inbertsio batzuk ditu, jaraunspenarekin zerikusirik ez dutenak.

2017ko maiatzean eraginpeko udalek izenpetutako hitzarmenaren arabera, Hernaniko Udalaren ardurapeko izango da jaraunsletzan jasotako ondasun higiezinak besterentzeko espedienteak ireki eta bideratzea. Behin ondasunak kitatu ondoren, testamentugilearen borondatea betez gauzatu beharreko ekintza zehatzak erabakiko dira, albazeak onartu aurretik.

## A.12 HARTZEKODUNAK

Epe laburrera ordaindu beharreko kontuen xehapena 2016ko abenduaren 31n honakoa da:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Saldoa 31/12/16
<b>HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK</b>	<b>1.113</b>
Jasot. bermeak eta gordailuak .....	316
UFFF 2016 likidazioa (ikus A.4).....	255
PFEZ Ogasun Publiko hartzekoduna .....	290
Gizarte Segurantza hartzekoduna .....	153
Elkarkidetzak .....	35
Bestel. hartzek. ez aurrekontukoak .....	64
<b>AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK</b>	<b>2.423</b>
<b>BESTE BATZUK</b>	<b>443</b>
Kreditu erakundeekiko zorrak (ikus A.10).....	420
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak .....	24
Aplikatzeko dauden kontu-sailak .....	(1)
<b>PASIBO KORRONTEA GUZTIRA</b>	<b>3.979</b>



## A.13 DIRUZAINNTZA

Ekitaldi itxieran Udalaren Diruzaintza honako xehapenaren arabera zegoen osatua:

	Euroak milakotan
	Saldoa
KONTZEPTUA	31/12/16
Kutxa .....	4
Kontu Korronteak.....	7.250
Eperako ezarpenak .....	5.350
<b>GUZTIRA</b>	<b>12.604</b>

## A.14 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANGINTZA

2007ko Foru Agindu bitartez, behin betiko onartu zen Hernaniko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak Berrikusteko espedientea, nahiz erabakiak berak baliogabe uzten zuen behin betiko onespren hori udalerriko esparru eta sektore jakin batzuei zegokienez. Dagozkion aldaketak eta egin beharreko izapideak bete ostean, 2011ko apirilaren 11ko aparteko udalbatzan behin betiko onartu zen Hernaniko Hirigintza Planeamendurako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina, 2011ko maiatzaren 13ko GAO n argitara eman zena. Orduz geroztik igarotako denboran, unean uneko zenbait aldaketa ere onartu dira, hainbat jarduketeta-unitatetan eragina izan dutenak.

### (HK) GA.09 area (Young Play)

2009ko urtean Hernaniko Udalak eta Hernaniko Galarreta eremuan, 10 zk. dagoen Young Play dantzalekuko lursailaren jabe den enpresak hitzarmena izenpetu zuten eremuaren hirigintzako garapena bideratzeko.. 2014ko urtean jabe berri bakarrak indarreko antolamendu xehatua aldatzeko proposamena egin zuen eta Hiri Antolamendurako Plan Berezia bultzatu zuen; plan hau 2014ko irailaren 30eko udalbatzaren erabaki bitartez onartu zen behin betiko eta 2015eko urtarrilaren 5eko GAO n eman argitara. Tokiko Gobernu Batzordeak Urbanizatzeko Jarduketa Programa eta zegokion Birpartzelatzeko Proiektua behin betiko onartu zituen 2016ko urtarrilaren 22an eta urte bereko apirilaren 15ean, hurrenez hurren. Azken honetan proiektua onartzeko ezinbesteko baldintza zen hirigintzako aprobetxamenduaren % 15eko lagapenari zegokion konpentsazio ekonomikoa ordaintzea, milioi bat euroan zenbatetsi zena.

Aipatutako kopuruaren ordainketari aurre egin ondoren, sektoreko jabe bakarrak 2016ko urrian hirigintzako beste hitzarmen bat izenpetu zuen, 2009ko urtean gauzatutakoa ordeztuz. Aldaketa nagusia izan zen arearen garapenerako baimena ematea, bertan hasiera batean aurreikusitako hoteletarako erabilera gauzatu beharrik izan gabe eta 4.200 m<sup>2</sup>(t)-ren eraikigarritasun garbia doan lagatzeko obligazioa Udalarari gehitzea, erabilera horri dagokion GA.09.2/A lursailean antolatua. Gainerakoan, aldagabe eutsi zitzaizen hasiera batean aurreikusitako gainerako konpromiso eta obligazioei eta, zehazki, aprobetxamenduaren %

15ari zegokion konpentsazio ekonomikoa -jada aipatu duguna-, eta sistema orokorren egikaritzan parte hartzea (ikus A.5).

## A.15 HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK

1989ko abenduaren 5eko udalbatzaren erabaki bitartez Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuko estatutuak onartu ziren eta atzeratu egin ziren Hernaniko Udalaren Gizarte Ongintza Saileko Fundazio Publikoaren eta Santa Maria Magdalena Zaharren Egoitzaren estatutuak, Patronatu berriaren atal izatera pasa zirenak. 2016ko ekitaldian erakunde autonomoak izena aldatu zuen eta Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak izatera pasa zen eta izena aldatzeko erabakia eta estatutuak 2016ko irailaren 12ko GAOn eman ziren argitara, aldaketa hori besterik izan ez zutela.

### Diru-sarrerak

Erakundearen finantzaketa-iturri nagusia jasotzen dituen transferentzia eta diru-laguntzetatik dator, dela Udaletik dela beste administrazio publiko batzuetatik eta hein txikiagoan, ematen dituen zerbitzuengatik erabiltzaileek ordaintzen dituzten kuotetatik:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
<b>TASAK ETA BEST. SARRERAK</b>	<b>1.970</b>
<b>TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	<b>5.855</b>
Udal erakundearen administrazioetik (ikus A.8).....	1.904
EAetik.....	237
GFAtik.....	3.705
Beste udal batzuetatik.....	9
<b>ONDARE SARRERAK</b>	<b>1</b>
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>7.826</b>

Erabiltzaileek jasotako zerbitzuen ordainetan ordaindutako tasak eta bestelako sarrerak eta GFAREN transferentziek honako xehapena dute:

Euroak milakotan		
KONTZEPTUA	TASAK ETA BESTEL.SARR.	GFA-REN DIRU-LAG.
Santa Maria Magdalena zaharren egoitza .....	1.494	2.336
Eguneko zentroa.....	263	835
Etkez etxeko laguntza .....	148	449
Beste batzuk .....	65	85
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>1.970</b>	<b>3.705</b>



## Langileria

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2016ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AITORT. OBLIG. 2016	AITORT. OBLIG. 2015	LANPOSTU LZ	KOP. PLANTILLA
Funtzionarioak.....	1.975	2.023	62	(*) 64
Lan-kontratu finkoko langileak .....	-	-	-	-
Aldi baterako lan-kontratuko langileak .....	1.045	903	E/E	44
Gizarte Segurantza .....	797	793		
Elkarkidetza .....	50	49		
Bestelako gizarte gastuak .....	21	22		
<b>LANGILE GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>3.888</b>	<b>3.790</b>	<b>62</b>	<b>108</b>

(\*) 24 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu.

## A.16 EREÑOTZUKO TOKI ENTITATE TXIKIA

Hernaniko Udalak 2006ko irailaren 15ean egindako aparteko udalbatzan, Gipuzkoako Udal Barrutiak arautzen dituen martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauan finkatutako prozedurari jarraikiz, Ereñotzuko gunean udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko entitatea eratzeko ekimena abiarazi zuen. Aipatutako arauan finkatutako prozeduraren arabera zegokion espedientea izapidetu ostean, urriaren 7ko 26/2010 FD ebatzi zen, Hernaniko udalerrrian Ereñotzuko toki entitate txikia sortzen zuena.

Toki entitate honek auzo-alkate bat du eta 2016an plantilla langile batek osatzen zuen.

## Diru-sarrerak

Ereñotzuko entitatea nagusiki Udaletik jasotzen dituen transferentzia eta diru-laguntza bidez eta, neurri txikiagoan, beste administrazio publiko batzuetatik jasotakoarekin finantzatzen da. Hain zuzen ere, 2016an transferentzia eta diru-laguntzen kapituluetan erregistraturiko diru-sarrerak (sarrera guztien % 98) honako xehapena dute:

	Euroak milakotan		
	4. Kap.	7. Kap.	GUZTIRA
Hernaniko Udaletik (ikus A.8).....	269	94	363
GFAtik .....	-	35	35
EAEtik.....	-	12	12
<b>JASOTAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>269</b>	<b>141</b>	<b>410</b>



## A.17 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu ondasun arrunt eta zerbitzu eta inbertsioetako gastuen 12 kontraturen lagin bat hartuta: 9 kontratu Udalak esleitutakoak eta hiru Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak:

AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK					Euroak milakotan	
KONTRATUA	DATA	ESLEIPENA		GASTUA 2016	HUTSAK	
		PROZED.ZENBATEKOA			A	B
<b>OBRAK</b>						
1. Aisialdirako gunea partzialki estali eta Urumea Ikastola HLHn ibilerraztasuna hobetzea.....	16-mai	PPN	279	282	A2	
2. Udal kiroldegiko igerilekua handitzea .....	16-ekai	Irekia	2.165	445	A2,3	
<b>ZERBITZUAK</b>						
3. Udal eraikinen garbiketa.....	11-abuz	Irekia	2.303	1.195	A2	
4. Kale garbiketa .....	10-apir	Irekia	3.823	1.059	A1,4	B1
5. Biteri Kultur Etxean ikastaroak eta haur tailerrak auzoetan .....	16-abuz	Irekia	AP	39	A2,3,4	
6. Kirol espezialitateak antolatu eta ematea kiroldegian .....	16-irai	Irekia	AP	51	A2,3,4,5	
7. Kiroldegiko igerileku eta instalazioetan salbamendua, sorospena eta lehen laguntza	16-irai	Irekia	AP	29	A2,3,4	
<b>HORNIDURA</b>						
8. Elektrizitate eta argiteriako materiala .....	15-uzt	Irekia	AP	134	A4	
<b>ADMINISTRAZIOKO BEREZIA</b>						
9. Hiri hondakinen atez ateko gaikako bilketatik jasotako paper-kartoiaren salmenta	16-ekai	Irekia	AP	(*)	A2	
<b>UDALA GUZTIRA</b>			<b>8.570</b>	<b>3.234</b>		
<b>ZERBITZUAK</b>						
10. Santa Maria Magdalena zaharren egoitzan sukalde zerbitzua	12-apir	Irekia	AP	476	A2	
11. Eguneke zentroan soziosan. eta laguntza zerbitzua .....	15-abuz	Irekia	AP	749	A2	
12. Santa Maria Magdalena zaharren egoitzan gaueko zerbitzu sozio-sanitarioa	16-irai	Irekia	646	81	A2,3,4	
<b>HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK GUZTIRA</b>			<b>646</b>	<b>1.306</b>		

(\*) 2016ko ekitaldian kontratu honi loturik 75.806 euroren diru-sarrerak kontabilizatu ziren, gasturik eragin gabe.

AP: Aleko prezioak.

PPN Publikotasundun Prozedura Negoziatua.

2015eko uztailaren 28an, udal eraikinen garbiketa kontratua iraungi aurretik, udalbatzak kontratu honi baldintza beretan eustea erabaki zuen, harik eta kontratu berri bat esleitzen zen arte. Horretarako, zegokion lehiaketa deitu zen eta zerbitzua 2016ko maiatzean esleitu zen. Alabaina, kontratua ez zen gauzatu Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak ebazpena ebatzi zuelako lehiaketa bertan behera uzteko aginduz. Kontratua azkenik 2017ko otsailan esleitu zen; gerora, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak esleipen erabakiaren aurka jarritako kontratazio gaietako bi errekurtsu bereziak ezetsi zituen.





Euroak milakotan

AKATSAK	ESPEDIENTE KOP.	ESLEIPEN ZENBATEKOA
<b>A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA</b>		
1. SARA kontratueterako aurreikusitako izapidea ez aplikatzea eta DOUEn ez argitaratzea .....	1	3.823
2. Pleguetan aurreikusitako esleipen irizpideetan akatsak .....	10	5.393
3. Pleguetan eta/edo esleipen ebazpenetan zenbait informazio ez barne hartzea .....	5	2.811
4. Behin betiko bermea kalkulatzeko akatsak .....	6	4.469
5. DBLO betetzeari dagozkion erabakiak kontratuan ez barne hartzea .....	1	AP
<b>B EXEKUZIOA</b>		
1. Kontratuaren luzamendu onartezina ezargarria zaion araudiaren arabera .....	1	3.823

## A.18 FINANTZA ETA AURREKONTUKO ADIERAZLEAK

Kontuen Epaitegiaren Tokiko Esparruan Koordinazio Batzordeak eta autonomia erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoek 2013ko maiatzaren 7an, nor bere erakundeei dagokienez, fiskalizazio-lanetan adierazle jakin batzuk erabiltzea onartu zuten, gerora toki administrazioarentzat kontabilitateko jarraibide berrietara egokitu direnak. Honekin baterako taulan esanguratsuen irizpideak jaso ditugu:

IZENA ETA KALKULUA	(a)2014	(a)2015	2016
<b>FINANTZA ADIERAZLEAK</b>			
Berehalako likidezia (funts likidoak/hartzekodunak epe laburrera) .....	% 86	% 146	% 182
Epe laburreko likidezia (funts likidoak eta kobratzeko eskub.(epe laburreko hartzekodunak) ...	% 210	% 231	% 310
Diru-sarrera errepikarien bilakaera.....	% 3	% 8	(% 7)
Egiturazko gastuen bilakaera .....	% 2	% 7	% 1
Sarrera arrunten gainean zorpetze finantzarioa (pasibo eskagarria/sarrera arruntak) .....	% 6	% 6	% 6
<b>AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK</b>			
Autonomia fiskala(sarrera fiskalak/sarrerak guztira) .....	% 45	% 45	% 42
Itxitako ekitaldietako kobrantzak gauzatzea (diru-bilketa/hasierako kobratzekoa).....	% 66	% 73	% 59
Inbertsio ahalegina (6. eta 7. kap. obligazioak (obligazio aitortuak)) .....	% 9	% 13	% 10
Aurrezki gordin ez finantzarioaren indizea (aurrezki gordin ez finantz./sarrera arruntak).....	% 15	% 19	% 16
Sarrera arruntengatiko geldikina (Geldikina/sarrera arruntak) .....	% 22	% 26	% 38
Zalantza kobragarritasuneko zordunen indizea (zalantz.kobr.saldoa/kobratzekoa).....	% 32	% 41	% 44

(a) HKEEK fiskalizatu gabeko ekitaldiak.

“Balantzearen “eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk” idazpuruan diruzaintzako soberakinak gordetzeko finantza kontuetan dauden funts likidoak barne hartzen dira; horiek, baina, “Aldi baterako finantza inbertsioak” idazpuruan birsailkatu behar lirateke. Funts horiek, 2016ko ekitaldi itxieran 5,4 milioi euro egiten zutenak, ez dira aintzat hartu erantsitako taulako likidezia ratioak kalkulatzeko (ikus A.13).





## HERNANIKO UDALAREN 2016 URTEALDIRAKO FISKALIZAZIO LANAREN BEHIN BEHINEKO TXOSTENARI ALEGAZIOAK

### II. IRITZIA.

#### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu modura oker kalifikatutako zerbitzu baten kontratazioa (4. espedientea), 3,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoa, ez zitzaion arautze harmonizatuari meneratutako kontratuarentzat aurreikusitako izapideari lotu eta ez zen DOUEn argitara eman. Kontratuarentzat finkatutako iraupenak, luzapenak barne, zerbitzu kontratuarentzat lege aurreikusitako gehieneko iraupen-aldia gainditzen zuen eta zehatzago esanda, 2016an sinatutako luzapenak gehieneko iraupen-aldi hori gainditzen zuen (SPKLren 279 artikulua).

#### ALEGAZIOA:

Aipatu kontratua (kale garbiketa zerbitzua) 2018 urtean erregularizatuko da, gaur egun indarrean dagoenaren exekuzio epea maiatzean bukatu ondoren.

### III BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.

#### III.2 LANGILERIA

- Udalaren LZ ez zaio plantillako egiturazko beharrei egokitzen udal euskaltegiko, musika eskola publikoko eta oinarritzko lanbide heziketako programako langileriari dagokionez eta behar horiek aldi baterako kontratazio bidez berdintzen ditu (ikus A.6).

#### ALEGAZIOA:

Udala ari da Estatuko 2017. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.BAT.6 artikulua egoera hauek erregularizatzeko eta aldi baterako enpleguak egonkortzeko eskaintzen dituen aukerak aztertzen.

Nolanahi ere, esan beharra dago Oinarritzko Lanbide Heziketako programaren beharrak betetzeko egin diren aldi baterako kontratazioen oinarrian dagoela, hain zuzen ere, Autonomia Elkarteak berak behar horientzat egin duen finantzaketaren aldibaterakotasuna.

2014-2015 ikasturtera arte programa honi lotutako langileen kontratazioa Autonomi Erkidegoak Udalari ikasturte bakoitzerako ematen zion diru-laguntzaren bidez finantzatzen zen.

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean sartu zuen aldaketaren ondorioz, kontratazio hauek 2015-2016 ikasturtetik aurrera Eusko Jaurlaritzak Udalarengan egin zuen delegazioari lotzen zaizkio, udalak bost ikasturterako onartu baitzuen delegazio hori, 2015-2016tik 2019-2010ra arte. Oinarrizko Lanbide Heziketako langileen kontratazioa, ondorioz, aldibaterakotasun horri lotuta dago une honetan, eta eztabaidagarria da haien funtzioak Udalaren egiturazko beharrak direnik.

### III.3 KONTRATAZIOA.

- *Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko jarraibideak ebatzi, lan-harreman bat aitortzeko erabakigarritzat jo litezkeen ekintzak saihestearren, aurrekontu egonkortasuna eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuaren 1. xedapen gehigarriak agintzen duen moduan..*

#### ALEGAZIOA:

Zerbitzuen plegu administratiboetan berriazko klausula batzuen bidez zehazten da udal kudeatzaileen eta enpresa esleipendunen langileen artean egon behar duen harremana. Horrela, Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuan, adibidez, hau jasotzen da:

“Udalak ez du inolako harreman juridikorik, lanekorik edo beste era batekorik edukiko esleipendunaren langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean eta ez horren amaieran ere, eta esleipendunaren kontura izango dira kontratua dela eta sor daitezkeen obligazio, kalte-ordain eta erantzukizun guztiak.

Enpresak bere langileekin eman beharko du zerbitzua.

Bestalde, lanak koordinatuko dituen arduradun bat izendatuko du, elebiduna. Arduradun horrek etengabeko harremana izan behar du ikastetxe bakoitzeko arduradunarekin, eta haiekin etengabe koordinatua egon beharko du, udaleko arduradunek ematen dizkioten jarraibideak ahaztu gabe.”

Era berean, udal igerilekuetako sorosle zerbitzuaren kontratuan ere:



## “17.- ZERBITZUARI ATXIKITAKO LANGILEAK

- a) Esleipendunak behar diren langile guztiak jarriko ditu kontratuaren gaia baldintza teknikoetan ezarritako moduan bete dadin.
- b) Langile guztiak bakar-bakarrik esleipendunaren menpe egongo dira, ondorio guztietarako, eta ez dago inolako funtzionario edo lan loturarik Hernaniko Udalarekin. Horretarako, kontratua burutzen hasi aurretik, esleipenduna behartuta dago zerbitzuan lanean arituko diren pertsona guztiak nor izango diren zehaztera eta Gizarte Segurantzako afiliazioa eta alta ziurtatzera.

Esleipendunak zerbitzuaren funtzionamendu egokiaren arduradun izango den pertsona bat izendatuko du eta hura izango da Hernaniko Udalarekiko eleduna.”

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeari hiru kontratu aztertu ditu:

- Santa Maria Magdalena zaharren egoitzan sukalde zerbitzua
- Eguneko zentroan sozio-sanitario eta laguntza zerbitzua
- Santa Maria Magdalena zaharren egoitzan gaueko zerbitzu sozio-sanitarioa.

Hiru kontratutan, Erakunde eta enpresaren artean lan-harremanak ondo bereizteko, eskaintzak baloratzeko irizpidetan enpresak proposatzen duen Erakundearekin koordinazioa baloratzen da. Plegu teknikoetan jasotzen dira Erakundearen eta enpresen betebeharrak zerbitzua ondo antolatuta egoteko. Adibide moduan, plegu bakoitzeko pasarte bana:

1.- Santa Maria Magdalena zaharren egoitzan sukalde zerbitzuaren Plegu Teknikoren VIII. Puntua:

“Zerbitzua une oro Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak emandako jarraibideen arabera emango da, eta lanak Zentroko zuzendaritzarekin estu-estu lanean koordinatuko dira, betiere erabiltzaileek asetasun mailarik handiena izate aldera.”

2.- Eguneko zentroan sozio-sanitario. eta laguntza zerbitzuaren Plegu Teknikoaren 11. Puntua:

“Zerbitzua ematerakoan, une oro, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak ematen dituen jarraibideak izango dira kontuan, eta gerentearekin estu-estu koordinatuz. Hori guztia hala egingo da, erabiltzaileei asetasun mailarik handiena ematearren.”

3.- Santa Maria Magdalena zaharren egoitzan gaueko zerbitzu sozio-sanitarioa Plegu Teknikoan 3. Puntua:

“Zerbitzua ematerakoan, une oro, Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udal Patronatuak ematen dituen jarraibideak izango dira kontuan, eta gerentearekin eta zaharren egoitzako Zuzendaritzarekin estu-estu koordinatuz gauzatuko dira jarraibide eta aginduok. Hori guztia hala egingo da, erabiltzaileei asetasun mailarik handiena ematearren.”



Kontratuak sinatu eta gero, Erakunde eta enpresaren artean zehazten dira harremanak, koordinazioa eta zehaztapenak lana garatzeko, aurrez aurretik finkatzea zaila baitira.<sup>1</sup>

- *Udalak eta bere Erakunde Autonomoak esleitutako 10 kontratutan honako akats hauek azaleratu dira pleguetan barne hartutako esleipen irizpideetan:*
  - *Guztira 7 kontraturen pleguetan barne hartutako formula aplikatzean, horietako bi, 2,9 milioi euroan esleitutakoak eta gainerakoak aleko prezioetan, prezio batek lizitazio tipoa berdinduz gero, puntuazio positiboa eskuratuko luke eskaintza ekonomikoa irizpidearen balorazioan. Horrek esan nahi du automatikoki neurgarriak diren irizpideei irizpide subjektiboek baino haztapen handiagoa ematen bazitzaien ere, egiazko haztapena txikiagoa zela (3, 5, 6, 7, 9, 11 eta 12 espedienteak).*

#### ALEGAZIOA:

Udala eta bere entitateak beren lizitazioetan honako formula hauek sartzea aztertzen ari dira: aurrekontua berdintzen duten eskaintzei 0 puntu ematea, eskaintza merkeenari gehieneko puntuazioa ematea, eta gainerako eskaintzei «proportzionaltasun zuzendua» irizpideari jarraitutako puntuazioa ematea. Formula horiek onartu egiten dituzte doktrinak zein kontratazio organo eta epaimahaiek.

- *Udalak ez ditu gastuak exekutatzeko prozedura negoziatu bitartez administrazio-kontratazioaren derrigorrezko espedienteak izapidetu kasu hauetan: asfaltatze lanei dagozkien gastuetan (120.803 euro) eta eraikuntzako materialen hornidura gastuetan (31.962 euro).*

<sup>1</sup> Aipatutako klausulak kontratuetan jasotzeak balio positiboa dauka; hori, baina, ez da txostenean aipatzen den lege-xedapenak agintzen dituen jarraibideak betetzearen pareko. Jarraibide horiek udal kudeatzaileen eta zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana arautu behar dute izaera orokorrekina, ez soilik kontratu jakin bati dagokionez. Aplikazio eremua, gainera, barnekoa litzateke ("ad intra").

## ABREVIATURAS

AG	Administración General.
BOG	Boletín Oficial de Gipuzkoa.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CEIP	Colegio de Educación Infantil y Primaria.
DA	Disposición Adicional.
DF	Decreto Foral.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
DT	Disposición Transitoria.
FFFM	Fondo Foral de Financiación Municipal.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IVTM	Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
IIVTNU	Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza-Urbana.
LCSP	Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
LOPD	Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de datos de carácter personal.
NF	Norma Foral.
NNSS	Normas Subsidiarias.
OA	Organismo Autónomo.
OARC	Órgano Administrativo de Recursos Contractuales.
PMS	Patrimonio Municipal de Suelo.
RD	Real Decreto.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
RSU	Residuos Sólidos Urbanos.
SARA	Sujeto a Regulación Armonizada.
THG	Territorio Histórico de Gipuzkoa.
TRLCSP	Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
TS	Tribunal Supremo.
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.





## I. INTRODUCCIÓN

El TVCP, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Programa de Trabajo aprobado por el Pleno, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Hernani para el ejercicio 2016.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el fiscalizado.
- Contabilidad: Conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son aplicables. La Cuenta General contiene los balances, las cuentas del resultado económico-patrimonial y las memorias del Ayuntamiento, del OA municipal Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak y de la entidad local menor de Ereñotzu, así como las liquidaciones de sus presupuestos. Los mencionados estados contables han sido objeto de auditoría por una firma externa, consistiendo nuestro trabajo en verificar el soporte de los informes emitidos en los papeles de trabajo de los auditores y realizar aquellas pruebas complementarias u otros procedimientos de auditoría que hemos considerado necesarios.
- El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización están comentados en el epígrafe III de este Informe.
- Análisis financiero de la situación económica del Ayuntamiento.

El municipio de Hernani, con una población de 19.712 habitantes a 1 de enero de 2016, integra en su estructura, además del Ayuntamiento, el OA Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak, cuyo objeto social se inscribe en el ámbito de los servicios sociales, incluyendo la atención integral a personas mayores en el centro residencial Santa María Magdalena. Además, el municipio cuenta con la entidad local menor de Ereñotzu.

Asimismo, forma parte de las siguientes mancomunidades y consorcios: Mancomunidad de San Marcos (gestión de residuos sólidos urbanos), Mancomunidad de Aguas del Añarbe (gestión del ciclo integral del agua), Consorcio Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (servicio de transporte) y Consorcio Udalbiltza (colaboración institucional entre ayuntamientos).

Además, mantiene participaciones del 49,9% y del 5,29% en las sociedades Garbitania Zero Zabor, SL y Beterri Kostako Industrialdea, SA, respectivamente, así como participaciones menores en otras sociedades (ver A.9).



## II. OPINIÓN

### II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

#### CONTRATACIÓN (ver A.17)

